

2024 garabide erabepiq

lankidetzan

hizkuntzak biziberritzen



EUS

AURKIBIDEA

1- Garabideren aurkezpena	4
2- Aitzinsolasa	6
3- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala	7
3.1.- Garapenerako Lankidetzaren erdigunean	8
3.2.- PLAZARA bidelagun	9
4.- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza	10
4.1.- Esperantzara kondenatutako beste 16 aktibista	11
4.2.- Yucatango maiaren loraldia	12
4.3.- Kitxua biziberritzeko lantaldeak, hitzetik ekintzara	14
4.4.- Nasa yuwea, hedatzen ari den uhina	16
4.5.- Boliviako ketxuak: Hezkuntzatik biziberritze prozesua nola hauspotu hausnartzen	17
4.6.- Boliviako guaraniak: Plan estrategikoaren zain egon gabe bide berriak sortzen guaraniarentzat	18
4.7.- Guatemala: Eskola sarean uzta jaso, beste biziberritze-esparruetan erein	19
4.8.- Nawat pipilaren "sehaskak", galzorian den hizkuntza baten azken aukera, El Salvadorreko bihotzean	20
5.- Hirugarren lerro estrategikoa: aktibazio soziala Euskal Herrian	21
5.1.- Munduko eta tokian tokiko hizkuntza gutxituak zein identitate anitzak uztartzen dituen hezkuntza proiektua	22
5.2.- Errenteriako kulturen arteko elkarbizitzan bere hazia ereiten jarraitzen duen lau urteko hezkuntza ibilbidea	24
5.3.- "Hizkuntza gutxituak bihar", nazioarteko kongresua begi-bistan	25
6.- 2024ko balantzea	26
6.1.- Egitura	27
6.2.- Balantze ekonomikoa	27
7- Erakunde babesleak eta erakunde laguntzaileak	28
7.1.- Erakunde babesleak	28
7.2.- Erakunde laguntzaileak	30

GARABIDE:

lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

Garabide irabazi asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakundea da eta 2005ean sortu zen euskal lankidetzaren berria egiteko: hizkuntza lankidetzaren. Hau da, kooperazioan lan egiten dugu, baina lan(kidetzaren) hori hizkuntzatik abiatzea da proposatzen dugun berrikuntza eta, gaur egun arte, horretan ari den GKE bakarra gara.



ZER?

Hizkuntza lankidetzaren, euskal lankidetzaren bereizgarria

Euskal Herriak munduarekin partekatze duen esperientzia edo jardunbide bereizgarrienetako bat euskararen biziberritze esperientzia da eta, aldi berean, **munduko beste biziberritze esperientzietatik asko dugu ikasteko**. Horregatik, Garabiden gizarte eraldaketaren ardatza hizkuntzen biziberritzean jartzen dugu. Izan ere, **komunitate edo gizarte baten garapenak ezin du integrala izan bere hizkuntza eta identitatea barnebiltzen ez baditu**. Garabideren egitekoak hiru lerro nagusitan sailkatzen ditugu:

- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala
- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza
- Hirugarren lerro estrategikoa: gizarte aktibazioa Euskal Herrian

2 ZERGATIK?

Mundua larrialdi linguistikoan dagoelako

UNESCOren arabera munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen artean, gutxienez, %43 dago desagertzeko arriskuan. Gainera, Soziolinguistika Klusterrak ohartarazi moduan, **munduan gertatzen ari den hizkuntzen galera masiboa, proportzionalki, handiagoa da bioaniztasunaren galera baino**. Gaur egun, bi astetik behin uzten da hizkuntza bat hiztunik gabe. Hizkuntzen galera edo, hobe esanda, ordezkatzeko prozesuak (hizkuntza gutxituak hizkuntza hegemonikoekin ordezkatzeko baitira) ez dira naturalak eta horren kontzientzia sustatu nahi dugu. Gainera, hizkuntza ekologiaren alde **gizartea antolatu dadin sustatzen dugu gure praktikak eta politikak linguistikoki jasagarriak** izan daitezen.

4 NOREKIN?

Euskalgintzarekin eta munduko hizkuntza aktibistekin zubigintzan

Gizarte eraldaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzea kasu, arnas luzeko prozesuak dira eta bidegarriak izan daitezkeen **tokiko eragileek gidatu behar dituzte**. Horregatik, nazioarteko hizkuntza lankidetzaren muina **hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten elkarte, erakunde eta hizkuntza aktibistak** dira. Gaur egun, Garabide munduko hamaika komunitaterekin ari da hizkuntza lankidetzan eta Euskal Herrian ere hamaika dira Garabideren laguntzaile eta babesleak. Izan ere, zubigintzan aritzen gara euskalgintza eta munduko bestelako biziberritze prozesuak aurrera eramaten ari diren eragileak elkarren artean lotzeko eta hizkuntzen biziberritzean aurrera egiteko elkarri heldulekuak eskaintzeko.

3 NOLA?

Esperientzia trukearen bidez

Kooperazio era berri honek egiteko modu berriak dakartza, hizkuntza gutxituetako biziberritze esperientzien elkartrukean oinarritzen baita. Komunitate bakoitzaren **hizkuntza biziberritze esperientzia edo know how hori sakonean ezagutzeko formazioa eta aholkularitza** dira gako nagusiak. Hala ere, ez dago errezeta bakarrik hizkuntzak biziberritzeko, tokiko ezaugarrien arabera komunitate bakoitzak bere bidea egin behar baitu. Formazio eta aholkularitzek mahai gainean jartzen dute hizkuntza gutxituen auzia globala dela eta aukera eskaintzen dute **estrategia lokalak garatu dituzten munduko erreferente desberdinen esperientziak sistematizatu eta transmititzeko**. Azkenik, hizkuntza lankidetzak biziberritze lanetan ari diren eragileen sarea ehuntzen du eta horri esker ahalduztze (g)uneak eratzen dira, hau da, bestelako gutxiagotzeak elkar lotzen ditu hegemonien deseraikuntzan laguntzeko.

5 NON?

Euskal Herrian eragin mundua aldatzeko

Nazioarteko hizkuntza lankidetzak, begirada zaballean, **euskalgintzaren nazioartekotzea** eragiten badu ere, bere eginbeharra ez da urruneko lankidetzaren proiektuetara mugatzen, **Euskal Herrian gizarte aktibaziorako tresna garrantzitsua** baita. Hizkuntza lankidetzaren etengabe ari da euskararen biziberritze esperientzia jaso eta ezagutarazten, modu ulerterrazean dibulgazio eleaniztuna egiten (liburuxkak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hitzaldiak...), ez soilik nazioarteko eragileekin partekatzeke, baizik eta gurean **euskararen biziberritze esperientziari dagokion balioa eman eta esperientzia horren transmisioa errazteko**.

2024koa urte berezia izan da, buruan bueltaka genuen ideia kuttun bezain handinahiari leihoa ireki baitio. Alegia, nazioarteko kongresu bat antolatzeko bidean lehen urrats sendoa egin dugu. Baina, zer dela-eta, nazioarteko kongresu bat?

Garabide aspaldian ohartu zen, hizkuntza gutxituren bat duten komunitatek gabezia mota bera partekatzen zutela: berezko hizkuntzaren garrantzia eta biziberritzeko premia justifikatzeko argudioen gabezia edo ahulezia.

Izan ere, gizartean topa daitezkeen ekintza, gertaera edota jarduera guztiei esanahi edo justifikazio bat eranstean diogu beti. Ildo beretik, hizkuntzek ere zentzua ematen dien diskurtso edo kontakizun baten premia izaten dute. Existitzeko motibo edo justifikazio sendorik atxikitzen ez bazaie, hizkuntzak kondenatuta daude desagertzera.

Hizkuntza nagusiek ez dute halako arriskurik, beren komunitatearen botereak (ekonomiko, politiko, militarra...) marka positiboa eta, ondorioz, irudi liluragarria ere ematen dizkielako. Horren aurrean, hizkuntza gutxituetako hiztunengan ere men egiteko joera nagusitzen da, askotan hizkuntza propioa bazterteraino iritsiz. Euskaldunok salbuespena ote?

Horregatik, hizkuntza gutxituen komunitateek beraien hizkuntzaren aldeko berariazko argudioen edo kontakizunaren premia dute; izaten jarraitzeko justifikazio sendoa sortu beharra dute. Baina, zer-nolako argudio behar da mundu globalizatuan?

Erantzun egokia bilatzea da arestian esandako kongresuaren jomuga. Munduko hainbat hiztun-komunitateren premiak eta ekarpenak partekatuz, elkarrengandik ikasi eta erantzun egokiak batera bilatzea da kongresuaren zioa.

2024 urteak esperientzia berri horretatik abiatzeko aukera eskura jarri digu.



Iñaki Martínez de Luna
Garabideko Lehendakaria



1. lerro estrategikoa

***FINKATZE
INSTITUZIONALE***

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ERDIGUNEAN



Nerea Uriarte, Garabideko harreman instituzionalerako arduraduna eta GGKE Koordinakundeko lehendakariordea, lankidetzarako aurrekontuen eztabaidarako Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian.



2022. URTETIK AURRERA, GARABIDE LEHENDAKARIORDEA ETA GOBERNU BATZORDEKO KIDEA DA EUSKADIKO GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN (GGKE) KOORDINAKUNDEAN.


Koordinakundea 1988an sortu zen eta 83 erakundek osatzen dute. Hala, GGKEek egindako lana 63 herrialdetara iristen da eta 3.318.225 pertsonaren bizitzan eragiten du.

Koordinakundeak defendatzen du elkertasunean, elkarrekikotasunean eta eskuzabaltasunean oinarritzen den nazioarteko lankidetzat. Halaber, justizia sozialarekin duen konpromisoaren ondorioz, Euskaditik modu horizontalean lan egiten du herrialde pobretuekin eta egoera zaugarrian dauden kolektiboekin batera. Horretarako, ezinbestekoa da sustatzea garapenerako euskal lankidetzapolitika sendoa, berritzailea eta egonkorra erakunde publiko, pribatu eta GGKEetan.

Koordinakundeko Gobernu Batzordea, zehazki, erakundearen organo be-tearazlea da eta Batzar Orokorrak erabakitakoaren arabera programatzen eta zuzentzen ditu jarduerak.

Garabidek, lehendakariorde gisa, parte hartu du Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legearen onarpenean, lankidetzat-aurrekontuen eztabaidan zein akordioetan, bai eta Lankidetzat eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluan zein Lankidetzat eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorean ere.

Koordinakundearen barne-funtzionamenduari dagokionez, Garabidek talde hauetan dihardu: gunee feminista, eragin politikoan eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan.



PLAZARA

bidelagun



Xan Aire (Plazara) eta Iñaki Martínez de Luna (Garabide) bi elkarteen arteko hitzarmena sinatzen.

PLAZARAK ETA GARABIDEK HITZARMENA SINATU DUTE MUNDUKO HIZKUNTZEN BIZIBERRITZEAREN ALDE LAN EGITEN JARRAITZEKO ASMOAREKIN.


2022an sinatu zuten lehen aldiz hitzarmena eta horrek ahalbidetu du bi elkarteen arteko lankidetzeta. Hala, Plazara eta Garabideren elkarlanaren

ondorioz, Europako zein Quebeceko hizkuntza komunitateekin eta Rif eskualdeko Amazighekin harremanetan egon gara. Amazighekin, gainera, Al-Hoceima hirian egindako jardunaldi batzuetan izan gara eta riftar hizkuntza eragileen egonaldia Euskal Herrian antolatu izan dugu.

Bestalde, Garabidek eta Plazarak 2023an antolatutako udako ikastaroa elkarlanean antolatu zuten. Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programari (Aditua) dagokionez, Plazarak urtero kudeatzen ditu Iparralden egin

ohi diren hitzaldiak, bisitak eta sentsibilizazio saioak.

Aurten sinatutako hitzarmenak etorkizuneko bidea ardaztuko digu. Batetik, komunitate horiekin lan egiten jarraitzeko asmoa islatzen du; eta bestetik, baliagarria izango zaigu askotariko komunitate eta eragileekin prestatzeko 2026an egingo dugun BIHAR kongresua. Izan ere, Iparralden eta frankofoniapen dauden hainbat hizkuntza komunitate gutxitarekin elkarlana garatzea izango da Plazararen ekarpenetako bat.



2. lerro estrategikoa

**FORMAZIOA ETA
AHOLKULARITZA**



Hizkuntza aktibistak eta hainbat garabidetar zein kolaboratzaile programaren itxiera ekitaldian.

Hizkuntzak Biziberritzeko II. Formazio Programa: **ESPERANTZARA KONDENATUTAKO BESTE 16 AKTIBISTA**

**13 KOMUNITATETAKO 16 HIZKUNTZA-AKTIBISTAK PARTE
HARTU DUTE EKAINETIK AZARORA BITARTEAN GAUZATU
DUGUN FORMAZIO PROGRAMAN.**

Programa online ikastaroarekin abiatu genuen ekainean, eta 6 astez, ohikoa den lez hizkuntzak biziberritzeko oinarriak transmititzeaz gain, hizkuntzak generoarekin duen loturaren inguruan hausnartzeko tarteak ere hartu zen.

Programaren bigarren aldi nagusia, eta aldi berean esanguratsuena, Euskal Herrian garatu dugu, irail-urrian, beste 6 astez. Nabarmendu beharra dago, hizkuntza aktibistei Europara sartzeko ipintzen dizkieten oztopoak oztopo, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren lagun-

tzari eskerrak, hautatutako 16 hizkuntza-aktibistak izan direla gurean:

- Amazig 1 (Rif-Alemaniko diasporatik)
- Asheninka 1 (Acre-Brasil)
- Bubi 1 (Ekuatore Ginea)
- Guarani 2 (Argentina eta Bolivia)
- Haitiko kreoleradun 1 (Haiti)
- Kaqchikel 1 (Guatemala)
- Ketxua 1 (Bolivia)
- Kitxua 2 (Ekuador)
- Kurdu 1 (Kurdistan)
- Maputxe 1 (Wallmapu)
- Mixe 1 (Mexiko)
- Nasa yuwe 1 (Kolonbia)
- Yukatango maya 2 (Mexiko)

Helburuen bidean eta partaideen esanetan, programan formazio saio teoriko "aberasgarriak", bisita didaktiko "inspiratzaileak", euskal jendartea hizkuntza gutxituen inguruan sentibilizatzeko saio "ederrak", eta praktika zein proiektu aldi "liluragarriak" uztartu ditugu.

Akaburako, hizkuntza-aktibista hauek guztiak formatu dira hizkuntzak biziberritzeko estrategietan, eta euskararen biziberritze esperientzia ezagutuz, gure Bizkarsoro ikusi eta eurena bizi izanda ere, esperantzara kondenatu dira.

YUCATANGO MAIA - MEXIKO

YUCATANGO MAIAREN LORALDIA

Yucatanango Maiaren biziberritze prozesuak loraldi ederra bizi izan du azken biurtekoan; 2022ko abuztuaz geroztik, Kellogg Fundazioak finantzaturik, Yucatan Penintsula osoan eragina izan nahi duen hizkuntza biziberritzeko plan estrategiko bat diseinatu eta sortzeari ekin baitzioten. Eta baita lortu ere.



Yucatanango maiak Arrigorriagan Gure Zirkuko emanaldian.

Garabide eta Yucatanango Maien arteko erlazioa 2011n hasi zen. Ordutik hainbat ekintza egin dira penintsulako berezko hizkuntzaren biziberritze prozesua indartzeko, turismoa eta gaizki deituriko Rivera Maia delakoa bertakoa den hizkuntza zokoratzen ari baitziren. Bertara joanez gero ugariak dira maien eginiko aipamenak, baina gerturatu

eta turismoari begira diseinatutako estrategia hutsak baino ez dira izaten askotan.

Joera horri aurre egin eta jatorrizko hizkuntzari dagozkion leku eta presentzia eman nahian, maiak sentimendua indartu eta hizkuntza eta nortasunaren biziberritzea lortu nahi dituen prozesu bati ekin zioten. Garabide eta Yu-

catango Maien arteko erlazioa sortu zenean ugariak ziren hizkuntza biziberritzearen aldeko ekimenak, txikiak baina ugariak. Yucatan bezalako penintsula handi batean hainbeste ekimen txikik inpaktu lokala baino ez zuten lortzen, eta maila nazionalean eragin gutxi izaten zuten. Garabidek antolatutako Aditu ikastaroei esker Yazmin No-



Yucatanango maiak Donostiako Udaletxeko bisitan.

velok Euskal Herriko egoera ezagutu ahal izan zuen, eta Yucatanen ere nazio mailako ekimena behar zela konturatu zen, martxan zeuden ekimen txiki guzti horiek estrategia beraren aterkiperak ekarri eta norabide berean egin ahal izateko arraun.

Gaur egun Yazmin da penintsula mailako prozesua lideratzen duen Yuyuum Elkarteko arduradunetako bat. Yuyuum Elkartek, Garabideren laguntzarekin eta Kellogg Fundazioaren finantzazioarekin, 2022an penintsula osorako baliagarria izan nahiko lukeen hizkuntza biziberritzeko plan estrategiko baten diseinuari ekin zion.

Bi urteko prozesu horren baitan penintsulan zehar hizkuntza biziberritzearen aldeko lanean zebiltzan aktibistak eta elkarteak identifikatuz hasi ziren. Hizkuntza biziberritzerakoan aitoritzen diren 9 arlotan banaturik (corpusa, hezkuntza, helduen irakaskuntza, aisialdia, administrazio publikoa, lan mundua, kultur sorkuntza, hedabideak eta familia transmisioa) plan estrategikoa diseinatzeari ekin zioten, eta 2-3 lagunek lantaldean banaturik hurrengo urteetan Yucatan nola ikusi


nahiko luketen amestu zuten, eta hori lortu ahal izateko zer egin beharko litzatekeen.

Prozesu horretan bultzada eta inspirazio iturri garrantzitsua ekainean Euskal Herrira egindako bidaiak izan zen. Lantalde bakoitzeko lagun batek euskararen biziberritze prozesuan garrantzitsuak eta ezinbestekoak izan diren hainbat protagonista ezagutu ahal izan zituzten.

Amets eta ekintza horietan oinarriturik sortu zuten 2024ko abuztuaren Meridako Maia Museo Nazionalean aur-

keztutako Plan Estrategikoa, 40 urte barruko Yucatan, eguneroko ekintza guztiak maiaz egiteko aukera eskaintzen duen Yucatan, irudikatzen duena.

Plana martxan jarri eta ametsak egi bihurtzeko garaia iritsi da.





Shimi Muyuta Tarpushpa kongresuaren irekiera ekitaldia.

KITXUAK - EKUADOR

KITXUA BIZIBERRITZEKO LANTALDEAK, *hitzetik ekintzara*

Aurreko urteetako diplomaturetan sortutako biziberritze lantaldeek bidea egiten jarraitzen dute, eta dagoeneko badoaz gorpuzten formazioetan izandako ametsetako batzuk

Hiru diplomatura egin ditugu 2020tik Imbaburako kitxuekin elkarlanean, eta formazio horietan formatutako ikasleek hainbat lantalde osatu dituzte, kitxua biziberritzeko lan arlo nagusietan estrategia berritzaileak martxan jartzeko asmoz. Geroztik, bide emankorrak urratzen dabilta lantaldeotan, ezbairik gabe. Biziberritze ekimen horiei formazio eta aholkularitza espezifikoak ematea izan da aurtengo lanaren ardatz nagusia. Lagin bezala,

ondorengoak dira lantaldeek aurtengo egindako lan azpimarragarrienak:

- Administrazio publikoko taldeak elkarlana sendotu du Imbaburako Prefekturarekin, eta prefekturak diru partida bat gordeko du kitxua-plana abiarazteko legealdi honetako urte bakoitzean. Bide horretan, Elhuyarreko Juanjo Perezek formazio soziolinguistikoa eman die Prefekturako kargu eta

langile gakoiei, eta kitxua-planaren diseinuan aholkularitza eman du.

- Kitxua-gaztelania interprete taldea sortu da Imbaburan, Lurdes Auzmendirekin egindako formazioari esker, eta dagoeneko hainbat ekitaldi publikotan eman dute interpretazio zerbitzua, lehenago gaztelania hutsez egiten ziren ekitaldietan kitxua erabiltzeko ateak zabalduz.



- Helduen hezkuntzako lantaldeak A1 mailako lehen unitateak osatu eta Prefekturako langileekin probatu ditu, AEK-ko Esti Nieva eta Joseba Irazabalen laguntzaz. Materialak probatzeko egin dituzten lehen saioek oso balorazio ona jaso dute ikasleengandik.

- Hezkuntza arautuko lantaldeak murgiltze eredu eskola pilotu bat sortzeko lehen urratsak eman ditu, Arizmendi ikastolako Iñaki Gonzalezen laguntzaz.



Urtean zehar egindako lan iraunkor horretaz gain, irailean “Shimi Muyuta Tarpushpa” kongresuaren bigarren edizioa egin dugu Imbaburan. Hiru egunez, hainbat herrialdetako hizkuntza ekintzaileek estrategiak eta esperientziak partekatu dituzte Ibarako PUCE unibertsitatean. Horrekin batera, lider indigenen lehen topaketa ere egin dugu. Bertan, Abya Yalako mugimendu indigenen baitan hizkuntza biziberritzeak zer leku duen aztertu eta hizkuntzari zentraltasun handiagoa emateko bideak pentsatu ditugu. Herrien artean esperientziak trukatzeko aukera paregabeak izan dira ekitaldi biak.

NASA YUWEA – CAUCA - KOLONBIA

NASA YUWEA, *hedatzen ari den uhina*



CRICak Toribio udalerrian antolaturiko topaketako parte hartzaileak.

Egitura sendoa eta urteeta-ko eskarmentua ditu Toribio-ko udalerrian nasek martxan duten biziberritze-prozesuak. 2024an aurreko urteetan hasitako bideari jarraipena eman diote, nasa yuwean oinarritutako hezkuntza proiektuak hedatuz.

Aurten ere, Nasa Yuwe Hizkuntza Biziberritzeko Hizkuntza Planak aurrera jarraitu du. Planak dituen hiru lerroetan, - hezkuntza arautua, helduen irakaskuntza eta alfabetizazioa-, esperientzia pilotuak hedatu edo martxan jarri dira. Hala, proba pilotu guztietan 250 pertsona inguru ari dira parte hartzen. Bide horretan, Euskal Herriko irakasleek formazioa eta aholkularitza eskaintzen jarraitu dute; esperientzia pilotuen jarraipen eta balorazioetan

parte hartu dute, datorren urteko materialen prestaketan aritu dira eta hizkuntza ikusgarri egiteko ekimenak bideratu dira.

Toribioko eredua beste lurralde batzuetan ere ezagutarazi da. Hala, nasen delegazio bat Imbaburako kixuen lurraldean antolatutako jardunaldietan egon zen. Nabarmenezkoa da ere, CRICak jatorrizko hizkuntzen biziberritzeari buruzko jardunaldiak Toribion egin izana. Gatazka militarra

gordin egonik ere, bertako esperientzia ezagutzeko interesa lehenetsi zuten.

Amaitzeko eta etorkizunera begira, esperientzia pilotuak hedatzea aurreikusten dute nasek, lurralde eta maila gehiago hartuz. Hala, biziberritze prozesuak dimentsio handia hartuko du, eta egoera hori kudeatzeko presata beharko dira, gaitasun zein errekurtsoei dagokionean. Gu bidelagun izango gaituzte.



Chuquisacan hezkuntza esparruko pertsonekin egindako tailer bat.

KETXUAK - BOLIVIA

HEZKUNTZATIK BIZIBERRITZE PROZESUA, *nola hauspotu hausnartzen*

Geldialdi baten ondoren, pare bat urte lehenago hasitako formazio prozesu bati amaiera eman zaio aurten Boliviako nazio ketxuan. Formazioak hiru departamentutan egin dira; Cochabamba, Chuquisaca eta Potosin, eta guztira hezkuntza esparruko 250 lagun inguruk hartu dute parte.

Formazio horietan biziberritze prozesu bateri dagozkion oinarritzko kontzeptuak lantzeaz gain, ketxuaren egoera eta berau biziberritzeko lehentasunezko erronkak definitu dituzte parte hartzaileek. Nabarmendu dituzten ideiak material eta pedagogia falta eta gurasoak hizkuntz transmisioan txertatzeko beharra izan dira.

Gainera, hainbat eragilerekin elkartzeko parada ere eduki du Garabideko lantaldeak bertako egonaldian, unibertsitateak, komunikatzaileak eta hainbat autoritate lokal, besteak beste. Sentimendu eta ideia konpartitua da ketxuaren

erabilera eta prestigioa hauspotu beharra dagoela, eta hori lortzeko estatuak publikaturiko dekretuak ez direla nahiko. Gizarte mugimenduzabal baten beharra dago.

Hala, bertako hizkuntza aktibista eta sektore sentsibilizatuek mugimendua egituratu eta askotariko bidelagunak norabide emankor batean jartzeko egin-kizuna dute hurrengo urteetan. Egoera politiko gatazkatsu eta polarizatuak zailtasunak gehitzen dizkio erronkari, baina hizkuntza biziberritzeko mugimenduak gora behera horien gainetik egoten asmatu beharko du.

GUARANIAK - BOLIVIA

PLAN ESTRATEGIKOAREN ZAIN EGON GABE *bide berriak sortzen* *guaraniarentzat*

Gure bidelagun guaraniek 2021ean definitu zuten Charagua udalerrirako Guarani hizkuntzarentzako plan estrategikoa. Hainbat lan ildo eta ekintza zehaztu dituzte. Ordutik, geldialdian dago plana, aitortza juridikoaren zain.



Guaraniaren hizkuntz aktibistak eta Garabideko ordezkaria Kazetaritza Eskola Indigenaren atarian, Charagua udalerrian.

Gaur gaurkoz autoritate lokalei dago-kie plana martxan jartzeko prozedura abiatzea eta horretarako behar diren errekurtsoak bideratzea. Zoritxarrez, erakundeek berezko dituzten oztopo burokratiko eta autoritateen partetik hizkuntzarekiko sentsibilitate faltak geldialdian dauka prozesua.

Horren aurrean, hizkuntza aktibistak eta sektore sentsibilizatuak ez daude geldirik. Hala, bakoitza bere es-

parruan; hezkuntzan, komunikazioan, kulturen zein politikan lanean ari dira etengabe.

Horrez gain, eta Garabidearekin batera, hizkuntza aktibistek plan estrategikoa eta haren testuingurua irakurketa orokor konpartitu bat egin dugu. Ondoren, diagnostiko horretan oinarriturik plan estrategikoa bultzatzeko bideak arakatzeko konpromisoa hartu dugu, eta aitortza juri-

dikari itxaroten egon gabe, martxan jarri daitezkeen dinamika eta ekintzak zehaztu dira. Hurrengo hilabeteetan horiekin hasteko asmoa dago. Horrela, gizarte zibil antolatuak prozesuaren motor izan nahi du eta autoritate lokalak prozesuan konpromisoak hartzera bultzatu nahi ditu. Azkenik, prozesu guzti honi jarraipena egiteko batzordea sortuko da, eta Garabide aholkulari egongo da bertan.

KAQCHIKELAK - GUATEMALA

ESKOLA SAREAN UZTA JASO, beste biziberritze-esparruetan erein

Aurten ere Ruk'u'x Qatinamit eskola sarearekin izan dugu elkarlanik handiena kaqchikel komunitatean, murgiltze eredua ezartzen jarraitze-ko formazioak emanez eta materialak sortuz. Horrekin batera, kaqchikel lurraldean biziberritze-estrategien inguruko ikastaro bat sortzeko prestaketa lana egin dugu.



Ruk'u'x Qatinamit sareko irakasleekin lxmukale eskolan egindako formazioa.



2024an ere, aurreko urteetako lanaren il-dotik, eskoletako ikasgai guztiak kaqchikelez emateko materialak sortzen jarraitu dugu, Ruk'u'x Qatinamit eskola sarearekin elkarlanean. Iaz bezala, haur hezkuntzako zientzietako ikasmaterialei eman diete lehentasuna aurtengoan ere, eta, horrenbestez, etapa horretako ikasturte guztietan zientziak kaqchikel hutsez emateko materiala eta metodologiak osatu dituzte, horretarako behar dituzten euskarri guztiekin: irakasleentzako gidak, ikasleen jarduerak, bideoak, esperimenezko jarduerak, terminologia zerrendak...

Eskola sarearekin jarraituz, aurtengo berritasun nagusia izan da bi eskola gehi-

tu direla prozesura: lxmukane' eskola berri ere elkartu da sarera, pandemiaren eraginez urte batzuk aldentuta eman eta gero, eta Renacimiento eskolak lehen aldiz egin du bat sarearekin. Bi eskoletako irakasleak kokatzekoasmoz, hainbat formazio saio egin ditugu urtean zehar. Haietako batzuetan Garabideko lantalde teknikoak izan da saioen gidari, eta besteetan murgiltze eredua inplementatzen ari den eskola kaqchikela. Formazioaren bidez, irakasleek euskararen biziberritze esperientziaren berri izan dute, ikastolen mugimendua eta Euskal Herriko hizkuntza ereduak ezagutu dituzte, baita urteotan Ruk'u'x Qatinamit sareak egindako

ibilbidea eta sortutako materialak eta metodologiak ere.

Azkenik, Guatemalan egindako egonaldian kontaktua egin dugu kaqchikelen alde lanean ari diren beste hainbat elkarte eta eragilerekin ere, eta 2025ean biziberritze estrategien inguruko ikastaro orokor bat egiteko hazia ereiten saiatu gara. Ikastaroa kaqchikel lurraldean bertan egingo litzateke, hainbat esparrutan haien hizkuntza biziberritzeko lanean ari diren eragileekin batera, biziberritze-estrategia eraginkorrak diseinatzen eta haien artean saretzen laguntzeko asmoz. Hurrengo urtean ikusiko dugu zer nolako fruituak ematen dituen aurten egindako ereite lanak.



NAWAT PIPILAK - EL SALVADOR

NAWAT PIPILAREN “SEHASKAK”, galzorian den hizkuntza baten azken aukera, El Salvadorreko bihotzean

Azken hiru urteetan Garabide elkarteak elkarlanean ari da El Salvadorreko Don Bosco unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta El Salvador Elkartasuna elkartearekin, eta Iruñeko udalaren laguntzaz.

El Salvadorreko bihotzean, Santo Domingo de Guzman eta Santa Catarina Masahuat herrietan, bada hizkuntza bat bizirik mantendu nahi duen komunitate txiki bat: nawat pipilak. Garai batean herrialdean hitz egiten ziren zortzi hizkuntza indigenetan azkena da, El Salvadorren, gizaldietan, nagusi izan zena. Kolonizazioaren triskantza bereziki gordina izan da El Salvadorren, eta horren ondorioz, gaur egun, 100 hiztun baino gutxiago ditu nawat pipilak. Hizkuntza horren aldeko azken apustua izan litekeena da Cuna Nawat deituriko proiektua, nawataren aldeko “sehaskak”, eskola proiektua eta Garabidek azken hiru urtee-

tan bere hazia jarri nahi izan du han lanean ari direnen bidelagun gisara. Don Bosco unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa ari dira horretan urte luzez, El Salvador Elkartasunarekin batera, eta Iruñeko udalaren babesarekin.

Cuna Nawat proiektuak hezkuntza proiektuak dira, haur hezkuntzako eskolak dira, eta murgiltze eredua moduko bat daukate martxan. Nawat pipila hitz egiten duten irakasleen faltan, azken hiztun gutxi horiek bihurtu dituzte irakasle, “nantzin” deitzen diete eurek, “amattoak”. Egunero, “nantzin” horiek, gelako txokoetan jarri eta euren hizkuntzan hitz egiten diete haurrei, gi-

zaldietan iraun duen hizkuntza horri eusteko azken ahaleaginean.

Komunitatean erabat etenda dago nawat pipilaren transmisioa, eta orain arte, azken urteetan, baztertu beharreko kontua zen, ahaztu beharrekoa. Cuna Nawatek esperantza puntu bat, eta harrotasun uholdea eman diote pipilei. Inguruko komunitateetatik eskaerak, hizkuntza erdi galduan zutenen ahalegina berriz hizkuntza pizteko, seme-alabei hitz egin ez dieten aiton-amonen ahalegina euren bilobei erakusteko... eta eskola txiki horietatik sortu diren 50 hiztun berritik gora... badira argi-izpiak, negu gordinen bizi izan den hizkuntza honentzat.



3. lerro estrategikoa

**AKTIBAZIO SOZIALA
EUSKAL HERRIAN**

MUNDUKO ETA TOKIAN TOKIKO HIZKUNTZA GUTXITUAK ZEIN IDENTITATE ANITZAK uztartzen dituen hezkuntza proiektua

Bigarren urtez jarraipena eman zaio hizkuntza gutxituak erdigunean jartzen dituen hezkuntza proiektuari, jarduera eta ekintza sorta emankorra aurrera eraman delarik, eskoletako hormetatik haratago.



“Munduko hizkuntza gutxituak protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan” proiektua 2023an abiatu zen EAEko hiru ikastetxetako –Araia Herri Eskola, Galdakaoko Eguzikibegi Ikastola eta Bilboko I.E.S Miguel de Unamuno B.H.I. hezkuntza zentroa– ikasleekin kultura eta hizkuntzen eremuaren gaineko kontzientzia kritikoa lantzeko. Garabidek eta Abya Yalako hezkuntza profesional indigenek ereindako haziari bide eman diote aurtengo urtean ikasleek, jardunaldi ludiko propioa diseinatuz eta gauzatuz, non jolas, sukaldaritza eta dibertsioa izan diren nagusi, munduko komunitate linguistikoaren bisibilizazio eta hauen egoeraren sensibilizaziorako. Jardunaldi hauetan eskolako beste talde batzuek zein hezkuntza komunitateko bestelako kideek

hartu dute parte, ikasitakoa gozamenetik partekatzeko asmoz.

Gainera, Soziolinguistika Klusterra rekin batera aitzindari askorik gabeko ikerketa prozesua gauzatu eta aurkeztu da hezkuntza zentroetan. Ikerketan, eskolako hezkuntza komunitatea erdigunean jarritz, hizkuntza aniztasunarekiko dauden jarrerak eta ezagutzak jaso dira. Informazioa jasotzerakoan, bi hizkuntza multzo hartu dira kontuan: alde batetik, hemen ofizialak ez diren hizkuntzak, batez ere jatorri atzeritarreko familiek ekarriak; beste alde batetik, hemengo hizkuntza ofizialak. Horrenbestez, hizkuntza aniztasunaren osotasunezko ikuspegia eduki nahi izan da eta, oro har, hizkuntza hauen inguruan dagoen ezagutza eta jarrerak aztertu dira, hezkuntza komunitate osoaren ikuspegitik.

Era berean, eskoletako hormak zeharkatu eta EAEn fokua jartzen duten ekintza sorta gauzatu da. Batetik, gurean bizi diren pertsona migratuen eta hizkuntza gutxitua duten hiztunen bizi istorioak biltzen dituen ikus-entzunezko sorta ekoitzi da, Euskal Herriko hizkuntza eta identitate anitzak ikus-tarazteko asmoz. Guztira sei hizkuntza ordezkatu dituzten euskal herritarrek hartu dute parte: tupi-guarania, kaqchikela, diola, tarifita, romania eta euskara.

Bestetik, Ordizian eta Irunen helburu antzekoak jarraitzen dituzten topaketak antolatu dira, hizkuntza gutxituak eta hauek zeharkatzen dituzten hainbat ezaugarriren inguruan (kultura, generoa, migrazioak, kolonialismoa, erlijioa, eta abar luze bat) hausnartzeko. Topaketa bakoitzean



Ordiziako Hizkuntza eta Identitate Anitzei buruzko Topaketako hitzaldia Tarana Karimen eskutik.

udalerrri bakoitzeko hizkuntza eta identitate anitzdun bizilagunen bizipenak eta testigantzak jaso eta partekatu dira, bertaratutako pertsonen arteko elkarrekintza eta elkar ezagutza sustatzea xede izanik. Finean, topaketa hauetan herritarren arteko harreman zu-biak eraikitzeko espazio goxoa sortu da, elkarren berri izan eta enpatiaz bakoitzaren errealitatea ulertzetik bizikidetzara hobeago baten alde egiteko.



Araiako Herri Eskolako ikasleak jardunaldi ludikorako diseinaturiko ginknara jolasten.



Bilboko IES Miguel de Unamuno BHI ikastetxeko ikasleak jardunaldi ludikorako prestaturiko errezetak prestatzen.



Ordiziako Hizkuntza eta Identitate Anitzei buruzko Topaketako tertulia, herriko identitate anitzeko bost pertsonak dinamizatuta.



Galdakaoko Eguzkibegi Ikastolako ikasleak jardunaldi ludikorako prestaturiko errezetak sukaldatzen.



Egiluze ikastetxeko DBH 4. mailako ikasleak Garabidek dinamizaturiko saioetako batean.

Errenteria: KULTUREN ARTEKO ELKARBIZITZAN bere hazia ereiten jarraitzen duen lau urteko hezkuntza ibilbidea

Laugarren ikasturtez, Errenteriako hezkuntza zentroetan kultura aniztasuna balioan jartzen duen eta komunitateen arteko elkarbizitza sustatzen duen proiektua gauzatu da.

“Kultura aniztasuna gure eskoletan eta horren balioa komunitateen arteko elkarbizitzarako” proiektuak munduan, Errenterian eta ikastetxeetan dagoen kultura aniztasunari erreparatzen dio, leku berezia emanaz hizkuntzei, eta bereziki hizkuntza gutxituei.

Ikasturte honetan bost dira parte hartu duten eskolak: Koldo Mitxelena BHI ikastetxea, Egiluze ikastetxea, Cristobal Gamón BHI ikastetxea, Orereta Ikastola eta Telleri-Alde Ikaste-

txea. Guztira hezkuntza komunitateko 300 pertsona inguru izan dira proiektuaren hartzaileak, ikasleak zein irakasleak. Izan ere, proiektuko berrikuntzen artean kokatzen da irakasleekin abiatutako sentsibilizazio lana.

Komunitate kulturalen ezaugarri aniztasuna; munduko kulturen homogeneizazioaren eta testuinguru hurbileko aniztasunaren gorakadaren arrazoiak; pertsonoi zeharkatzen

gaituzten ezaugarri eta kategoriazberdinek eragiten dituzten diskriminazio egoerak; pertsonen garapenean eta identitatearen eraikuntzan hizkuntzak eta kulturak duen garrantzia, besteak beste, dira saioetan zehar kritikoki jorratu diren aspektuak. Gainera, ikasturte honetan Errenteriako kultura askotarikoa duten zenbait bizilagun gerturatu dira ikasgeletara, beren kultura eta bizipenak ikasleekin partekatzeko.



“HIZKUNTZA GUTXITUAK BIHAR”, nazioarteko kongresua begi-bistan

Aurrelanak egin dira 2024an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin.

Garabide kultur elkarteak, Euskal Herriko beste erakunde batekin elkarlanean, hastapen lanak egin ditu 2024an, hizkuntza gutxituen etorkizuneko diskurtsoak aztertzeke nazioarteko kongresua antolatzeke bidean. Plazara kultur elkartearekin batera aritu da lan horretan, hizkuntza gutxituek etorkizunari begira dituzten proiektzioak, arrazoibideak, narrazioak edo diskurtsoak zein ote diren aztertzeke asmoz.

Garabidek eta Plazarak, biek dituzte esperientziak hizkuntza gutxituekin eta harreman horietatik ateratako ideia nagusiak izan dira aurrean lanaren


abiapuntu. Horrez gain, joan den urtean egindako EHUKo Udako Ikastaroak ere kontuan izan dira, eta baita Soziolinguistika Klusterreko BAT aldizkarirako Plazara elkarteko Xan Airek prestatutako artikulua ere, eta beste hainbat dokumentazio ere. Aurrean, ideia horiek sistematizatu eta ponentzia moduan jarri dira, euskalgintzako eta garapenerako lankidetzako elkarlanean nagusi batzuetan lehen kontrasteak egiten hasteko. Ideia horiek sarean zabaltzeko, ikus-entzunezko batzuk prestatzeko ideia multzo bat ere prestatu da 2024an.

Aurrean horiek egin dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesarekin, eta 2025ean hasiko den proiektu askoz handiago baten hasiera moduan. Proiektu horren antolaketan, beste bi talde ere ari dira: Soziolinguistika Klusterra eta Euskaltzaleen Topagunea. Proiektu handi hori 2025ean hasiko da eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak babestuko du. Lehen urtean, hizkuntza gutxituen diagnostikoa egingo da eta euskalgintzako agenteekin konpartituko da diagnostiko hori. Nazioarteko kongresua 2026an egingo da.



2024ko

BALANTZEA



SARRERAK

Diru laguntza lehiakorrak	629.057,95 €
Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta	372.176,93 €
GUZTIRA	1.001.234,88 €

GASTUAK

Bidaide programa: hizkuntza komunitateekiko lankidetza proiektuak + on-line formazioak	69.104,38 €
Hegoko diplomaturak	538.908,35 €
Munduko hizkuntza gutxituak protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan	96.764,93 €
LEEA hitzarmena_ikastaroa	194.765,00 €
Administrazioa	19.113,53 €
Koordinazioa	48.845,68 €
Zabalkundea	38.227,06 €
GUZTIRA	1.005.728,93 €

BABESLE, BAZKIDE, LAGUNTZAILE ETA BOLUNTARIOAK

Garabideren lana erakundeek, zein norbanakoek babesten dute. Ekarpen ekonomikoa egiten duten erakundeei babesle deitzen diegu eta norbanakoei bazkide. Aldiz, diruz bestelako ekarpena egiten duten erakundeak laguntzaileak dira eta norbanakoak boluntario.

Garabidek 2023ko bukaeran **32 erakunde babesle** zituen. Horrez gain zinez eskertu behar dugu **84 bazkideek** erakutsitako babesa.

Ekarpen ekonomikoa egitetik haratago, **30 boluntarioen eta 53 entitate laguntzailearen lana** aitortu eta zintzoki eskertu behar dugu, hizkuntza lankidetzaren proiektuetan euren denbora eta esperientziak partekatzeagatik.

Dimentsio eta ezaugarri anitzeko ekarpen guzti horien baturari esker izan da posible memoria honetan jaso ditugun hizkuntza lankidetzaren ekimenak aurrera eramatea. Beraz, eskerrik asko guzti-guztioi.

BABESLEAK





LAGUNTZAILEAK





garabide erabipiq

2024

943 25 03 97

688 63 24 33

garabide@garabide.eus

www.garabide.eus

 /Garabide.eus

 @garabide

 /Garabide

 /Garabide Elkartea

 @garabideelkartea